

Galera errepikatuak

JUANRA MADARIAGA

 **Susa** poesia

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 1992 Juanra Madariaga

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 1992ko maiatza

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.com

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

*Berari, berak hustu bait ninduen behin,
eta zuri, zeuk bete bainauzu betikotz.*

«Digamos que te alejas definitivamente
hacia el pozo del olvido que prefieres,
pero la mejor parte de tu espacio,
en realidad la única constante de tu espacio,
quedará para siempre en mí, doliente,
persuadida, frustrada, silenciosa,
quedará en mí corazón inerte y sustancial,
tu corazón de una promesa única,
en mí que estoy enteramente solo
sobreviviéndote.

Después de ese dolor redondo y eficaz
pacientemente agrio, de invencible ternura,
ya no importa que use tu insoportable ausencia,
ni que me atreva a preguntar si cabes
como siempre en una palabra.

M. Benedetti

GALERAK ETA EROSIONAK

«Je t'aime quand ton grand oeil verse
Une eau chaude comme le sang»

Ch. Baudelaire

Requiem

«*Requiem hau neretzat egin dut*»

W.A. Mozart

UDAGOIENEKO KURRILOAK

«Hay golpes en la vida, tan fuertes... Yo no sé!»

C. Vallejo

Zu joan zinenetik
udagoieneko kurriloen haiduru nago,
ezpatabelar xuri-gorriak baititut laketago.

Zu joan zinenetik
neure doluen ezitzearen haiduru nago,
zure irri besarkagaitza baititut laketago.

Zu joan zinenetik
zure amets karanen aiduru nago,
iragandako anbiola fidela baititut laketago.

Zeren zu joan zinenetik
bizia baitut barnerago eta
ene jagoitiko galerak are mikatzago.

OROIMENAREN KUADROAK

Gauez ez dut astirik izan izkiriatzeko,
lorik gabeko gaua izan bada ere,
ez dut deusik izkiriatu,
zuk eraman baitizkidazu eskuak,
irakurtzeko begiak,
belzteko ene pergamuak,
zuk eraman baituzu naizen guztia,
hutsik utziz,
hormak bakarrik ditudala (biluzik)
zure oroimenak zintzilikatzeko.

BIHUR ALBANEZA IRAGANA

Bihur albaneza iragana
astoluma zuriz beteko nuke etxea,
joan ez zekizun
begitarte zuriaren irria,
joan ez zekizun
min horren esker beroa.

Bihur albaneza iragana
ihintza ekarriko nuke etxera,
garbi zenezan
hainbeste minen odola,
garbi zenitzan
begi horien lanturuak.

Bihur albaneza iragana
zerua jarriko nuke gure etxatean,
abia ahal zintezan
kotoizko bidea bailitzan,
inoiz galdu senarraren
hartzara ikustera.

POETIKAREN ARKITEKTURA

Poemaren angelutik at
deuseztatzen da mundua
eta koloreak barreiatu.
Erran nahi baita
karraturen direla
nere pena eta loriak,
nere kexa eta eihagorak.
Eta hori perfekzionatzera
deliberatu baitut,
poema angeludunak
izkiriaturako ditut.
Zuretzat.
Poemaren angelutik at
ezpaitago deus.

EKIAK ZURIERAZTEN DU HABORO

Ekiak zurierazten du haboro
gakorrazaz brodaturiko oihal fina,
ohetarik bi aldeetara
aintzinatik baretua dirudiena.
Besoak ere zorurantz seinalatzen du
ixekia bailitzan
ekia ihakindatuz.

Horman kuadro tipi batek
liliz beteriko bedatsea erakusten du,
balizko urrelilien lurruna
logelaren xoko orotarik
barreiatuz.

Haizetxoak gortinaia urdinak mugierazten ditu
astoluma handi baten hegalak gomutaeraziz.

Bakardadeaz eta ixiltasunaz blai
amoranteen gorpuak
ohe zurian dautza.

Haien soin ahulak
uztarturik daude pozoamenduaren zioaz.
Eta laguna, negar zotinka,

uzte handian dagoela ohartzen da,
eta ezin paira dezake lanturu eta deitorea,
ezin paira dezake amodio honen galera.

GALERAREN TRILOGIA

«tú justificas mi existencia:
si no te conozco no he vivido»

L. Cernuda

1. Zeruan tragaza bat bezala

Zeruan tragaza bat bezala lertxoin-saldoa,
aintzindari zangarrak markatu die abioa,
gal baleza baina helmugaren hegoa,
alde orotarik galdurik, bai, aldra eroa.

Halaz niri, betikotz galtzean amaren beroa.

2. Berdetasunez beterik

Berdetasunez beterik pagadi zaharra
bedatsean,
arbizi uherra dirudi egunaren goiztirian,
zein biluzik osteraren den udazken-amaieran,
zein tristea lurrarentzat ohizko hostapea

galtzean.

Halaz niri, amaren altzo eztiaren faltan.

3. Itsaso zabalean

Itsaso zabalaren uhin gainean ipar-izarra,
hari so, aspaldidanik, itsasgizon zaharra,
kresalarekin batera nahastuko da haren
negarra,
ziplo ostentzen baldin bada zeruko argi
bakarra.

Halaz niri, betikotz galtzean amaren zirarra.

TXEPETXA

Urretxindorren txirritxorroak
eta urrundik datozen eliza baten ezkilak ez ezik,
ez da ordoki luzean zehar deusik entzuten.

Salbu eta
baserriko teilatuaren oholen arteko
ohantze beroaren xerka
jin den
txepetx tipiaren hegada, tit-tit-tit.

Basoaren magalean
lehertzen da, tanpez,
tiro bat.

Eta jadanik, ezkilak sakonean,
heriotz batenak bihurtu dira,
akaso kexuz.

MEMORIALEA

«tu eres lo que va:
agua que me lleva
que me dejará»

R. Alberti

Zu zinen
bedatseko sorbeltz arina,
jareindako malko bakarria,
leherturiko zinkurina,
gauetz daridan negarria.

Ostargien dohatasuna
eta urrumadan besarkada.

Zu zinen
esperogaitzaren sorgina,
ene ametsen begiraria,
larrazkenaz gozatzeko grina,
hastandu zaidan miraria.

Isiluneen dohatasuna
eta hotzaroan besarkada.

Zu zinen
betiereko sorlekua,
itxaropen osoaren leloa,
neukan losin segurua,
abandonatu nauen beroa.

Bihotzaren dohatasuna
eta tristuran besarkada.

Zu zinen
lahartu gabeko bidea,
gerorantz ninderaman bultzada,
kontsolatzen ninduen elea,
iraungi zaidan taupada.

Aitaren dohatasuna
eta etxean besarkada.

LEHEN ERROMESA NINTZEN

«Et perdrás pel camí
que no té mai tornada»

S. Espriu

Erromesa nintzen,
iparrararen bila mundua kurritzen duen haietarik.
Jendearen gain elikatzen eta janzten nintzen,
nik ordainetan arkameleak kondatzen nizkien
supazter-txokoan.
Apopilo ere hartzen ninduten
ostatuz ez nengoenean.

Boztarioz bizi izan nintzen
negu beldurgarri bat heldu arte,
elurte hartan etxola tipi batetan sartu arte,
eta han, zu kausitu zintudan arte.
Handik hona ez ditut bide berriak desiratu
zure ezpain geregidunak baizik.
Lehen erromesa nintzen,
munduz mundu dabilen haietarik.

IGURIAREN TRILOGIA ETA BAT GEHIAGO

1. Iguria naiz

Iguria naiz,
gauak izartegiari begiratzera
behartzen duen haietarik,
hotz krudelak lo egitera
uzten ez duen haietarik.

Iguria naiz,
ilargiari ondikorik minenak
kondatzen dizkion haietarik,
erredolari emaztea baileukan
eleztatzen dion haietarik.

Iguria naiz,
eta etsaien etortzea igurikatzen dut.

Iguria naiz,
eta gaueko sakaila igurikatzen dut.

Iguria naiz,
eta batzutan, etsi-etsian, igurikatzen dut
heriotza.

2. Erregea eho behar nuen

Erregea eho behar nuen gauez,
halaz, ene brokelaren gibelean izkutatu
nintzen,

iguriak ene begien erlantzak ikus ez zitzan.
Boboiien kantua ihakindatu nuen gero,
gauari fida zekion,
baina halaz guztiz, zelatan segitu zuen
iguri fidelak.

Loak hartuko zuelakoan nengoen
eta hotzak makur eta etzanarazi,
baina halaz guztiz, zut segitu zuen
iguri fidelak.

Argizagia bete eta zuritu zen izartegian,
eta hark eresi xarmant bat eskaini zion,
baina halaz guztiz, zurt segitu zuen
iguri fidelak.

Gau hartan erregea ez nuen eho,
oinaze handia senditu bainuen
iguri balenta azkonaz
ehotzean.

3. Dorrea

Dorreak irme zirauen goiztiri horretan
baina hutsik.

Ekia murra bailitzan esnatzen zen.

Itxesaren susmoa bihotzean zeukalarik
arrajin zen bardako arimaren ebaslea,

erahilea,

ezinago triste,

ezinago etsiturik,

ezinago bano.

Talaiaren iguria eho zuen

bihotzeko azantza inarrosiz betikotz,

baina zein ere izterbegia zen,

apiril horretan dorre hartako iguria egin zen

eta besteak bezala

haiduru dago,

heltubada, heriotzaren ere.

+ . Iguri guziek

Iguri guziek diraute
hodeiertzari biziki estekaturik,
ekaitzen gain edaten eta pizten,
mengo honezaz eresiak sortzen,
errauts bihurturik,
karraldez meztiturik hil direno,
iguripenaren esperoan hil direno,
haiekin batera hil gareno.

EZ BAZARA

Ez naiz joanen
itsasoaren ikustera
baso ilunetan bazara,
ez eta
mendiaren magalera
haitz artean,
zokoetan bazara,
ez eta
saien artean bilatuko,
zuhaitzen lizun zaharra bazara.
Ez, ez dut zure fereka
desiratua ukanen
inon existitzen baldin ez bazara.

OROIMENA LAHARTZEN EZ DENEAN

Laket nago izarrak gauari joka ikusiz
eta boboia zuhaitzen atzean,
ostotsak mendien haindian
eta lotan ortzondoa ene ohean.

Laket nago denborak oroimena lahartzen ez
duenean.

Laket nago zureganako iskia barnean sendituz
eta bihotzean balaku luzea,
harrabarra gorostiaren artean
eta behin atzenduriko musua hartzara oroituz.

Laket nago denborak oroimena lahartzen ez
duenean.

Baina ez nago laket orainokoan izanarekin,
adiaz igaro baitira bizitza eta ametsa,
adiaz ere desagerturiko bihotza,
agian horregatik hobe nengoke zurekin,
ene bila etorri arte heriotzaren aihotza.

ATZENDUKO DUT

«Fugit irreparabile tempus»

Virgilio

Atzenduko dut astalarrosaren gorri bortitza
eta behialako zorion eskuragaitza.

Atzenduko dut ene sakailaren usain mikatza
eta behialako zeruaren iruntza.

Atzenduko dut ene iragana, beraren egoneza,
ihesliar bat naizela nadin kontura.

OI LILURA

«Sei insostituibile. Per questo a dannata
alla solidudine la uita che mi hai data»

P.P. Pasolini

Oi lilura enea
Oi lilura gaixua
zutandik haraitzina
naukezu hastandua.

Gaua da heldu,
bakarrik sendituz
hango hiltamua baino
ezin dut oroitu.

Dut eta bihotz mina,
dut eta negargura,
arima ere arraildurik
gaurdanik duket arduran.

Neguantza da heldu,
elurra orotarik agertu,
hotzago nauzu ni
baituzu negua betikotz sortu.

MINAREN EROSIOA

Min egiten dit,
min egiten zidan eta
min egingo
ene hezurretaraino
ekarri zenidan berriak,
zure ahotsaren ezinak,
herioak herbalduriko agurrak.

LABORRIAK ETA ESENTZIAK

«Entre el espanto y la ternura
corre la suerte,
con el abajo y con la altura
con vida y muerte»

S. Rodriguez

Dies irae

«Quantus tremor est futurus»

ANTITESIA

Laborria eta losina
l-ez hasitako eleak,
anparo ankerraren grinak,
begietan anpuluena beleak.

HAREN IZENA

Ahantz niro
oroitarriaren aitzinaldean
ontsa izkiriaturik
ezpalego.

Ahantz niro
arbizi uherrean
betikotz landurik
ezpalitz izango.

ARO KRUDELAK

Larrazkenak dakarkit elur-malo karana,
neguteak zuritzenago du ene maina luzea,
bedatsea berriz izanen, zu izanen zarena,
eta uda,
zure ahoan jateko gerezi garratzak.

GATAZKATIK

Gatazkatik itzuli nintzen
armaduraz jantzirik
bihotza boztarioz, irusik,
eta zu nereganatzen ikustean
gutiziatu zintudan,
Grialá bezala,
eta geroz maitatu,
halaz ere
ez nuen zure besarkada senditu
brontzezko armadura hotzak
galerazi baitzidan zure kereza.

EGONEZAREN GAINEAN

«Y aunque tu no has de verlas
para hablar con tu ausencia
estas íneas escribo
únicamente por estar contigo»

L. Cernuda

Egonezaren gainean egingo dizut berba,
zu gabeko bizitza ezberdina baita.

Gogoratzen zara?

Minaren minean barreka eta barreka,
lorik gabeko ametsa algaraka,
eta gauak oro, joan gabe lotara.

Egonezaren gainean egingo dizut berba,
ezberdina da zu gabe,
zu gabe,
oso ezberdina.

HELTZEN ARI DA LARRAZKENA

Agian heltzen ari da larrazkena,
halaz,
gakorratzaz brodaturiko gortinaia zuriak,
ene begietan bezala,
jarri ditut leihoetan,
ez dakit logelako zoko guziak
artatseak argi eta zuri ditzan
edo eta
ene leihoaz lekora
munduak egartzen duen laborria
ikus ez dezadan.

EURIAREN ESPEROAN

Euriaren esperoan nago,
indarge.

Bihotza erdizkaturik dadukalarik,
euriaren esperoan nago.

Ene arradiza baitu sendatuko,
odola baitit ikuziko,
mina baitit eztituko,
edo eta

bakean hil nadin,
euriaren esperoan nago.

SINTOMAK

Ezaldia,
isiltasunaren hurkotasuna,
noragabeko maina,
aldiune horren desafioa,
ene bihotzaren jitea,
oroipenaren odola gosaltzeko,
lehenengo pausoaren mina,
eguzkiaren alaitasun komertziala,
ezpainen ihartasun desertikoa
eta batipat
nere taupaden bakartasuna eta
hedoien kaligrafia da
nere begietan,
geroan,
lanturu urdin bilakatzen dena,
goiz orotan.

HEDOIAK

Ortzia uherra da,
hedoiak uherrago,
eza-aldi honen erraietan
ezin dira karanago.

GU DA AZALIA

Gerlariak ordokia betetzen zuten,
zurdaz jantziriko belartzak zapalduz,
buruz buru, urrunean
arerioaren begiak somatzen saiatuz,
baina zein ere gizon elementia zen
ez zen fitsik ere entzuten
lekat eta lantza guzien puntak
urratzen zuen haizearen urrumada,
guda azalia bilakatuz.

ABANDONATURIK

Bakarrik senditzen naiz
inguma beltz honetan,
bakarrik eta abandonaturik,
nereganatuko ez zarelako,
hartzara ikusiko ez zaitudalako.
Bakarrik senditzen naiz
denik eta agiantzatuena
zu zarela,
ez zaudena.

SINONIMOA

Nik ukan ditudanetarik
ez baitit deusek argitzen,
ez dakit zeren sinonimoa zaren zu.
Itsasoa, ausaz, zure begi nigartiarena.
Iretargia, zure bisaia zuriarena.
Hondartza, ausaz, zure erkaitz alaiarena.
Eta goiztiria, zure bihotz uzcurraren kolorearena,
baina zu,
ez dakit zeren sinonimoa zaren.
Halabaina
laga didazunaz denaz bezenbatean
ezin deusik ere erran,
lekat eta galera bilakatu zarela,
ezaldi bilakatu zarela,
eramankizun bilakatu zarela.
Ezin deusik ere erran,
lekat eta tormentu bilakatu zarela,
eta honen sinonimorik ez dut idoro nahi.

ESENTZIAK

Laborria da ene hatsa
gibelean dudan hotsa
hosto gabeko aritza
amodioaren heriotza.

Laborria bizi izandako bizia
iragan oroimenen hotza
larrazken ororen hitza
miserikordiaren heriotza.

DOLUGRAMAK ETA ANGORES

«De lo que fuí no tengo sino estas marcas crueles
porque aquellos dolores confirman mi existencia»

P. Neruda

Recordare

«Ne me perdas illa die»

DOLUGRAMA I

Urrian arrosak
Azaroan geranio
Abenduan ezpata-belarrak.
Ez nezakeen nehoiz irudika
hain loredun heriotza.

ERREPIKA

Ez iezazkidazue haboro eman
arnastezinezko gauak,
errezel ilunez besarkatzen nautenak,
denboraren mirabea kondentzen dutenak,
eskale hutsa bezalakatzen nautenak,
leiho altuetatik gainez egiten dutenak,
trajeria aldarrikatzen dutenak.

Ez iezazkidazue haboro eman
atzerazinezko gauak,
ahantzurarik gabeko gauak,
oroimen gabeko itsasoaren uhinen gisan
hasi baitira errepikatzen.

ETXEA

«Haren minez orai nago ezin hilez bizirik»

B. Etxepare

Etxea daukat
hautsez beterik
eta bihotza karraldoz,
alosalda galdurik.
Hil zintzaizkidanetik
oroimena daukat
sakailez beterik,
lanturua tangaka,
zuhaitza biluzik,
eta oraino ere, ondikotz,
nago bizirik.

NOLA AIPA

Kilkerrak,
gaueko begirariak,
kantuz betetzen du ilunabarra,
ordokia gaueko ihintz beltzaz
beztitzen den unean.
Zerua, jada, ez da urdina,
oharmentxaren tenoreak,
berunaren koloreak,
itotzen baitu
abantzu den egunaren azken hatsa.
Eta nik ezin erran
ederra denentz.
Bada, hainbeste itxesen artean
edertasun hitza
nola aipa?

ITSASOA

Bart soperna itsasoan.

Artatsean abarrez beteko da harea.

Tartean ere, zure oharmentxa
bizirik dateke.

DOLUGRAMA II

Argiaren ezpatak
itsutu nau goizez.
Gauaren ezpatak
itsutu nau gauez.
Herioaren ezpatak
itsutu ote nau minez?

LANTURUEN PAUSA

Herio damaren arrogia
oldartu nau berriz.

Bihotzeko su tristea
ez ote dateke nehoiz ametikaturik?

Negarrak hartzara, arima epela
harrikaldiskatu dit.
Ene bihotzaren azala
ez ote da egonen arradizaz beterik?

Abantzu desesperaturik nago
argirik ezpaitut antzemaiten.
Jinkoa alakatuz
ez ote du lanturuak pausarik ukanen?

MALERIAZ EZ ZORATZEKO

Haizeak, haizea izateko,
hosto bigunak behar ditu.

Marrubiak, marrubia izateko,
bihotzaren bisaia behar du.

Larreak, udaberriko larrea izateko,
belar berde eta disdiratsua behar du.

Eta neuk, hain sinplea da
neuk behar dudana
maleriaz ez zoratzeko.

DOLUGRAMA III EDO BEDATSEGRAMA

Arrajiten dira einarak,
haiekin jiten dira sorbeltzak,
zerendako ez ziren jin bedatse hartan,
lili gabeko bedatse beltzean.

NEGUKO PANIKOA

Udaroan zuhaitzak bezala
galkatu da bihotza
itxesez, aiariz, deitorez,
eta beldur naiz
ez ote zaizkidan pisuaren poderioz
arimaren adarrak kraskatuko,
ez ote zaidan boztarioaren ifertzina
uherrez beteko
eta alta, nihaur, herbal, mendre eta uzkur
bilakatuko.

Beldur naiz
ez ote dakidakeen bihotzaren fruitua
ustel eta abail betikotz.

DOLUGRAMA IV

Ez dago heriotzean meniarik
betikotz irauten duenik,
ez eta deitorerik
oihartzunean isil daitekeenik.
Ez dago bizian meniarik
geroragoan heriotza ez dakarrenik.

ANGORES

«Zinez alperrik hil zaretea?

Galdu zarete orozbat?»

J. Mirande

Ments dut orain
geroan behar izanen dudana,
bizitze osoan zehar irakatsiz
bizirik mantendu nauena,
nere baitatik aski hastandurik
orain senditzen ez dudana,
bihotzez sobera unaturik
hainbeste negarrerazi didana.
Ments dut orain
geroan behar izanen dudana.

HERIOTZA ETA LUTUAK

«Sé que la muerte es un olvido que no da reposo»

J. Talens

«And the whole pain flows open

And I Die»

D. Thomas

Lacrimosa

«*Lacrimosa dies illa...*»

HARITZA ETA HERIOTZA

Elurtzan nabil,
ene hatzak inprimatzen,
elur-matazen poderioz
banitzen diren arren.
Aitzinean, arrabaskaturiko haritza
zoruan datza,
marrauz handi bat bailitzan,
ene pauso guziak geldieraziz.

Hala haritza elurtzan
nola bizitzan heriotza.

POST MORTEM NIHIL EST

Amodioa zen, euria baino lehenago
bakardadea,
alosisia,
julufria baino lehenago.

Eta heriotza ere.

Amodioa da, argidia baino lehenago
hitza,
arrabita,
hatsa baino lehenago.

Eta heriotza ere.

Amodioa dateke, kizkoria baino lehenago
isiltasuna,
sorbeltza,
balakua baino lehenago.

Eta heriotza ere.

Baina jagoitik, nahi ezpada ere, ez dirateke nehoiz,
zihaur baino lehenago.

ABANTZU DIRENEK

«Dying.

Is an art, like everything else»

S. Plath

Abantzu direnek

dena daukate

eta itsasoaren urgainetik ibil daitezke

eta elurtzan ez dute erexarik inprimatzen,

errez banitzen baita abantzu dena.

Abantzu direnek

dena daukate

eta aberastasunaren lurrunean egiten dute lo

eta ez dute inguma eta eldarniorik sofritzen,

errez banitzen baita abantzu dena.

Kuriosoa da, baina

abantzu direnek

dena daukate

heriotza propialaren jabeak baitira

itsasoaren urgainetik ibil baitaitezke,

besterik ez.

DAUGIN BEDATSEAN

Daugin bedatsean
joanen naiz ikustera
txiribita eta kalak
nola loratzen diren,
.....
haren granitozko hilobira.

ABENDUAK 18

Zure heriotzak urte bat bete du,
badirudi ere atzo izan zela
barailaren azpian menda bat ezarri zitzaizunean
aho zabal, eta burua makur eta eror ez zekizun.
Badirudi ere, atzo izan zela
zure azken odol tantak
(eta hau oihuzkatuko nuke)
zure azken odol tantak
aho-ertzetik
agurtzen ninduenean
eta berarekin batera ere
zuk.
Atzo dirudi.

LUTUA

«...en la soledad nacen y mueren cosas...»

P. Neruda

Duela lau hilabete
bakarrik gosaltzen,
bakarrik ibiltzen eta amesten,
bakarrik egiten lo.
Bakarrik. Nehor ez gehiago.
Eta mahaian,
hormari begira,
ezin paira bailezake bestaldean,
gorpuzturiko zure egoneza uherra.

RESUSCITATIO ETA ZUHAUR

Agnus Dei

«...quia puis es»

RESUSCITATIO

Irunta
amultsuki erortzen
ikusi dut.
Eta loreak
besorik gabe,
besarkatzen saiatzen zirela
begitandu zait.
Edo nihaur nintzen?

ZUHAUR

Gauari fida nintzaion,
kareza ekarri baitzuen,
misteriotsua izaten baitzen,
zure irriaren antza baitzedukan,
amodiozko kobla entzuten baitzen,
maitaldia iritsia baitzegoen,
zuhaur baitzinen.

ELE-KODEAK (inskripzioak)

INSKRIPZIOA I

Sobre las cenizas del sentido, puede alzarse el largo camino de un aprendizaje, no ya literario, sino vital. El sujeto, el texto, la lectura, la experiencia, y también aquello que se llama la biografía y la historia, son siempre problemáticos. No hay respuestas «naturales» o de sentido común; todas son provisionales y contextualmente poco determinadas, como el individuo mismo cuyo proceso es la vida y cuyo único horizonte es la voluntad, supuestamente inquebrantable, de asimilar, comprender, reconstruir y deconstruir los códigos que lo traspasan.

Jenaro Talens
(El largo aprendizaje)

INSKRIPZIOA II

Hilobiak igurikatzen zaitu
bidearen amaieran
astiro ioan zaitezke
atsedenaldiak ere har ditzakezu
etsi gabe
igurikaturen baitzaitu

gaubeldurrez ezpata izterrean
zaintzen duen
gerlariaren antzera
zaitu zaintzen
balbeak
hilobiak igurikatzen zaituen lekutik
eta iristean
musua emanen dautzute
marrubi erdibitua diren
balbearen ezpaineak
betirako ohantzean
etzanaraz orduko

Joseba Sarrionandia
(Izuen gordelekuetan barrena)

INSKRIPZIOA III

Al poeta corresponde *alzar el lenguaje contra la Nada*, tal como lo ha hecho constar Leopardi en el frontispicio de sus Cantos: «Es propio de las obras geniales el hecho de que, a pesar de que representan crudamente la nulidad de las cosas, a pesar de que demuestran evidentemente y hacen sentir la inevitable infelicidad de la vida, a pesar de que expresan las más terribles desesperaciones, sin embargo sirven de consolación y de renovación del entusiasmo de un alma excelsa que, ella también, se encuentra en un estado extremo de abatimiento, desengaño, nulidad, monotonía y desprendimiento de la vida; y no tratando ni representando otra cosa que la muerte, le devuelven, al menos momentáneamente, la perdida vida».

Rafael Argullol
(*El héroe y el único*)

INSKRIPZIOA IV

Sé lo que es morir
entre los frutos exteriores,
entre los óleos injustos de aquel patio abandonado
hace ya tiempo,
en los ojos dormidos de los seres amados
y su intemperie,
de los seres supremos,
ser el paisaje pasajero de los ojos de los otros,
reanudar ese viento,
donar en vano mis matices al vacío.

Sé lo que es morir
entre las flores venidas de la lluvia,
en los cuartos confusos de las aguas,
de tus gestos
antes de huir, antes de huir lo inevitable.

Sé lo que es morir
en los rápidos libros de la noche,
en los seres queridos,
en los amigos viejos,
en las músicas lejanas,
en los dioses circulares de la guerra
y la costumbre,

los jabones de plata y desenlace,
las viejas ecuaciones,
los monstruos obedientes de los sueños,
los ángeles idénticos de piedra,
entre todos vosotros.

Sé lo que es morir a cada instante.

No sé lo que es vivir.

Nadie lo sabe.

Aire, humo, disfraces,

fue aquel huecograbado de siluetas.

Carlos Aurtenetxe

(Palabra perdida - Galdutako hitza)

INSKRIPZIOA V

Holaxe amaitu zen hamaikagarren hilabetea,
hazila:

Hegora zihoazen basa antzerren kantuarekin.

Eta jarri zinen zeruari begira, eta esan zenidan:

Hegorik banu, ni ere saiatuko nintzateke

Lur berrien bila, jasoko nuke neure kanpamendua

Bandera beilegiz seinalatutako kostan;

Hobeto egin dezan denborak bere lana,

Ahantz nadin betirako

Hiri honetako murraila eta jendeaz.

Eta oroit zaitez, nik galdera bakarra egin nizun:

Zergatik ote gara hain zorionik gabeko?

Sikira apur bat beranduago hil izan balitzaigu

Ikusiko zukeen edurra atarian pausatzen.

Eta bien bitartean, aingeru ilunak etorri,

eta eraman egin zuten arratsaldea bera ere.

Holaxe amaitu zen hamaikagarren hilabetea, hazila:

Hegora zihoazen basa antzerren kantuarrekin.

Bernardo Atxaga

(Poemas & híbridos)

Oroitzeko ura, edateko ura

Felipe Juaristi

Herioarengandik ihes egiten saiatuz, biziaren bila abiatu, eta hori bere baitan dagoela konturatu ez den gizonaren liburua da hau. Heriotzea kanpokoak baita, ez barnekoa. Eta horretaz konturatzen garenean hasten gara bizitzen, bizitzaz gozaten, denboraren iragan krudela gainditzen.

Askotan pentsatu izan dut zein den bi kontzeptu horien arteko ezberdintasuna (heriotzeaz eta bizitzeaz ari naiz). Konjeturak, autresentipenak besterik ez ditud aurkitu. Arakatu dut literaturaren historia. Gauza handirik ez. Isiltasun-ibai bat hitzen itsasoan itotzen. Azken finean, ez bata zein bestea, huts-hutsean eta bat-batean, ez baitira deus, garrantzia dute guk haiei ematen diegun neurrian. Eta prozesu horri memoria deitzen zaio. Denboraren balioa, edo plus-balia batzutan.

Gogoratzen ari naiz, aspaldi ez dela, gai honetaz egon ginela mintzatzen poeta hau (Juanra Madariaga) eta biok, euria ari zuen egun batean. Bizkaiko he-

rri estraino batean. Gogoratzen ari naiz hitzaldi inprobisatu hartan esandakoaz. Memoria dut. Bizi naiz, alegia. Bizi gara.

Hala zioen Martin Heidegger-ek Hölderlin-i buruzko saio zoragarrian: «Poesia egitea da oroitzea. Oroitzea, sortzea. Zerbaitek irauten duen seinale. Oroimena».

Memoria eginez gogoratzen naiz Grezia Zaharrean memoria gabe gelditzea zigorra zela. Memoria-rik ez izatea eromen-suerte bat ere bazen. Memoriak gizona definitzen baitu, denbora definituz. Iragan denbora eta denbora presentea bat egiten dira izpirituaren ahalmen horren bidez.

Eta garena izan garenaz oroitzen garelako.

Bada Marguerite Yourcenar-en poema bat, oso ondo adierazten duena prozesu guztia: «Ate beltz baten aurrean, / eskubitan, zumar baten azpian, / ahazteko ura dario. / Ezkerrean oroitzeko ura jaiotzen da, / kristal izoztua, likido hotza. / Oroitzeko ura nire bihotzean dago. / Hantxe edaten dute nire minak eta nire pozak. / Ondoan etzaten dira jakintsuak. / Zera esango nieke nik: Heriotzearen naiz beldur».

Memoria dudalako identifikatu ditut hitz horiek poetak berriki idatzitakoekin. Urteak igarota ere ura

baita ur. Bihotzetik sortzen denaren eramale. Minen eta pozen edari.

Mina, maite izan dena betirako joan egin delako. Mina, elemendu aintzinakoa. Hura dela medio, eraiki ziren piramide erraldoiak, katedrale ikusgarriak, tenplurik erakargarrienak. Minetan jaio ginen. Oihua izan zen gure lehengaia. Mina ezagutzen ez duenak ez dezake ezagut horren infrentzua: poza. Minari muzin egiten dionak lurrari egiten dio muzin. Minetik ihes egiteko txoria izan behar, eta hegan egin zeru garbian, edo pausatu edo kulunkatu soka lazo batean. Minak idatzi ditu sinfoniarik ederrenak, apurtu ditu adimenaren gartzelak, egin ditu iraultzarik sinesgaitzenak.

Galera, ausentziaren beste izena. Eta ausentzia amodioaren ahizpa. Horretaz konturatzen gara ez dagoenean. Poesia-liburuak beterik daude ausentziaz. Poesia, ez dagoenarekin bat egiteko saioa. Amodioa, betiko ezintasuna, hura ikutzen ari garenean desagertzen baita. Mamu bat, persegituko duguna mendetan eta mendetan, ditugun bizi guztietan. Gu arroka izango garenean hura izango baita goroldio. Eta hura denean zuhaitz sendo, gu orduan haize. Eta gu itsaso eta hura hondartza. Eternidade deitzen den jolas

erremediezina. Mundua aienez dago beterik, norbait falta zaigulako kexu.

Gauaren, itzalaren sinonimoa. Sufritzen duenari argia ere ilun egiten baitzaio. Dolua, zilarrezko ilar-gia. Gizon bat bakarrik lau puntu nagusiek seinalatzten dituzten lau norabideetan. Jiraka burua. Tristezia.

Tristeak dira poetaren hitzak. Benetakoak direlako. Iku daitezke, usain daitezke, laztan daitezke, arimaz aparte gorputza baitute, urrutian bada ere. Ez dago poemario honetan hitz fribolorik, gaurregun modan dauden horietarik, hitzegiten da sentitzen den modura, eta ez da sentitzen hitzegiten den arauera. Bada zerbait hondoan, iraultzen dena, gauzak bere lekuan uzten ez dituenak. Egoneza.

Jakitea ez garela inongoak. Ezin gaitezkeela ezeri atxiki behar, ez bada garen instante iheskor horri, nahiz eta jakin galduko dugula. Izan ere, maite ditugun pertsonak joaten badira, zeren izan behar dugu beldur?

Heriotzearena, noski. Agerian dago poemario osoan. Errekorrizen ditu zuzen ala zeharka etorbide guztiak, estaltzen ditu atsedeen-lekuak, mututzen ditu

ezpain guztiak, jartzen du lutoa larrosa gorrietan. Denbora.

Iraganean bizitakoa. Euriaren hariak gugana dakarrena, ezari-ezarian. Horri ere deitzen zaio memoria. Munduaren kontzepzio ziklikoan giltza nagusia, memoriarik gabe apurtzen baita heriotzearen eta bizitzearen artean dagoen oreka. Ibaiaren urak gainezka egin eta bazterreko zelaiak menpean hartuko balitu bezala. Bi marra paralelok elkar aurkituko balute bezala. Zerua eta lurra ur tantez batuko balira bezala. Oreka apurtzea naturalezaren legea apurtzea baita. Naturalezaren zikloarekin haustea.

Grezia Zaharreko filosofoei irakurriz ikasi nuen ez dagoela ezer txarragorik naturalezaren aginduei ez jarraitzea baino. Eta haiengandik ere jakin nuen kontzeptoak ez direla itxura duten antzekoak. Memoria dudalako gogoratzen ari naiz Heraklitok esandako honetaz: «Heriotzea da ikus dezakeguna, ernai gaudenean; baina lo gaudenean ikustera iristen garen hori ametsa besterik ez da».

Ametsa, memoriaren lagun. Memoria da horregatik egon daitekeen hitzik politenetakoa. Memoriaren bidez jakin dezakegu zer izan ginen, aurki dezakegu besteen arrastoa denboran, geure ezaugarriak dire-

nak baieztatzeko. Bizitza, heriotzearen erdian. Bizia,
Juanra Madariagaren baitan.

Poesia, geroaren erauntsia.